

# Azkenean *Grexit*, herrialdea eraitsi eta greziarrak zukututa gero



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Europarrak entretenituta zeuden bitartean Trump eta *Brexit*-arekin, Grezia berriro hurbildu da bidegurutzera: otsailaren 20a baino lehen hitzartu behar du itun berri bat bere zor publiko ordain ezinaren hartzekodunekin edo eurotik –eta menturaz Europar Batasunetik– kanpo gera daiteke. 2008an lehertutako krisiak ez dizkio oraindik ezusteko gogorrenak eman Europari.



Siriatik iritsitako errefuxiatuak ez dira Grezian hil ala biziko estatusunean bizi diren bakarrak. Atenasko osasun etxe batean, medikuaren atean papera erantsita: “Gaixoen muga gainditu dugu. Barkatu eragozpenak”. Gripeak jota dabilen Panagiotis Grigoriou antropologoak deszifratu du mezu ulergaitza *Greek Crisis* blogean. Grezian mediku guztiek dauzkate kuotak, egunero Gizarte Segurantzaren kontura artatu ditzaketen gaixo kopuruak, 3 eta 5 artean gehienez, eta horien ondoren iritsitako guztiek –berdin dio Gizarte Segurantzak kotizatu ala ez– patrikatik ordaindu behar dute. Kuotan sartu ez bazara, edo ordaindu edo medikurik gabe geratuko zara. Eta hiru milioitik gora greziar aseguruak gabe bizi dira, edozein botika, mediku edo operazio pagatzera derrigortuta.

Doktorearen salan jende gehiagoren artean zain dagoela, Grigoriouk ikusi du bere aurreko gaixoa larritasun aurpegiz iriteten. “Andrea –esan dio sendagileak– sistema informatikoak dio martxoan Gizarte Segurantzak kanporatu egingo zaituela”. “Eta zer gertatu behar zait orduan? Langabezia nago, mediku jauna... Martxotik aurrera aurkituko al dugu modurik medikuren batek artatzeko?”. “Sentitzen dut, andrea, Jainkoak beste inork ez daki”.

Etengabeak dira protestak Atenas bezala Greziako beste hirietako karriketan, agentziek banatu dituzte horien irudi deigarriak gauza inportanteagoekin denbora pasa bizi diren europarrek

ikusitakoak. Milaka traktore atera dituzte errepide eta autopistetara nekazariak, argazkietan ageri dira artzainak makilaka borrokan poliziek. Pentsioak berriro jaitsi dizkietelako manifestazioak antolatu dituzte jubilatuek, ikusi zahar jendea poliziaren autobusa iraultzen. Osasun sistema publikoko medikuak ere irten dira karrikara, horra poliziak medikuen buruzagiari lepotik heltzen... Horrela milaka.

*Troika* deituak –Europako Batzordeak, Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtsekin– greziarrei ezarritako hirugarren Memorandumaren biktimak dira. Syriza agintea hartu berritan erreferendumean arbuatu arren –*Oxi!*– are bertsio gogorragoan irentsi behar izan zuten murrizketa plan erraldoiarenak. Urte eta erdi geroago, ekonomialari burutsu askok aurreratu zuen moduan, Grezia iritsi da ataka berrira: ongizate gizartea goitik behera eraitsi arren, herrialdeak ezin die aurre egin zorrei. Negoziaketak korapilatu dira eta otsailaren 20rako adostasunera ez iristekotan, Grezia gera liteke Europatik kanpo. Ingelesek *Brexit*-a abiarazi aurretik, *Grexit*-a gertatu?

18 hilabetetan historiak Grezia hasierako lekura bueltan eraman balu bezala, Alexis Tsiprasek dio ez duela murrizketa gehiago onartuko –Troikak eskatzen dio zaharren pensioak gehiago jaitea eta familiei zergak handitzea– eta Berlingik Wolfgang Schäuble finantza ministroak erantzun dio “edo bestela *Grexit*”.

Zazpi urte dira Greziari zor publikoak eztanda egin zionetik eta gauzak ez dira geroztik okertu baizik egin. NDF Nazioarteko Diru Funtsekin aitortu berri du publikoki murrizketa guztiak estu konplitu eta are handiagoak ezarrita ere, Grezia lehertu egingo dela zorraren zamapean. “Greziako ekonomia ezingo da hazi zorraren arazoa konpondu ezean. (...) Bere zor balantzea jasangarria izan dadin, Europako hartzekodunek Greziari zorrak neurri handi batean barkatzea beste erremediorik ez dago”.

## Greziarrak leher eginda daude

NDFk autokritika egina zuen 2015ean, nahiz eta orduan barne idatzi batean izan. Hartan zioen Greziak mirakulu bat beharko zukeela aurreko gobernuak pilotutako zor erraldoia pagatu ahal izateko. Miraririk ezean, NDFko ikerketa taldeak proposatzen zuen hartzekodunek zorra barkatu eta austeritate fiskala ez areagotzea, horrek baimenduko ziola-koan herrialdeari kanpotik inbertsioak erakarri eta ekonomia berriro bertzea.

Alemania izan da aukera horri atea itxi diona, nagusiki bere herritar boto emaleek ez luketelako ontzat hartuko. Prentsa ekonomikoan erreferentzia den *Bloombergek* idatzi du: “Agonia ez da amaituko NDFk ez badu konponketa derrigortzen. NDFk eta bertan dirua jarrita daukatenean –europarrek eta iparramerikarrek– jatorrizko bekatu eta akatsak egin zituzten eta gero haietan mantendu. Orain ez da aski ‘*mea culpa*’



*Petros Giannakourisen argazkian, zahar jendea poliziarekin borrokan Atenasen, berrikitan pentsioen murrizketengatik haserre egindako protesta batean. Irudian ikus daitezke zaharretako batzuk polizien autobusa uzkaitezko ahaleginean. Troikaren planak derrigor ezarri zitzaizkienetik, txirotasuna eta bizi ezina are gehiago zabaldu dira greziarren artean, eta aldi berean estatuaren zor publikoa handitu.*

esatearekin: egiazko erantzukizunak eskatzen die NDFren akziodunei zintzasunez onartzea benetako galerak. Hau da, barkatzea Greziak NDFari dizkion zorrak eta uztea greziarrei eta europarrei anabasa honen soluzioa bilatzen”.

Europako aginte nagusiak ez dira iritzi berekoak, Alemaniatic Wolfgang Schäublek urteotan markatu duen jarrera erasokorraren uberan doaz denak. Orain, gainera, ikusirik Europar eskuin muturrak hartu duen haizea, Schäublek harro esan dezake *greziar alferrei* beren zorrak pagarazteko taktikak fruitu onak ematen dizkiola Alemaniako eskuinari, lortzen duelakoan AfD ultraeskuindarrari hauteskundeetan bidea ixtea.

Alemania jarrera bortitz horretan egonik, eta Troikak urtarrilean murrizketa gehiago eskatuta, nola ulertu Tsiprasek esatea murrizketa bakar bat

gehiago ez duela onartuko? 2015eko udako filmaz gogoratuta, pentsa liteke asteotan jokia mugaraino eramanez arerioa bigundu nahian ari dela... azkenean tratu berriaren atal nagusiak onartzeko. Hori da posibilitate bat.

Bestea da Syrizarren gobernuaren benetan aritzea *Grexit* hipotesia lantzen. Herritar askok dagoeneko amore eman du Europarekiko bere itxaropenetan: Alco ikerketa enpresak plazaratu duen inkesta baten arabera, gehiengo dira drakma utzi eta euroa onartzea okerra izan dela uste dutenak. Greziako pertsonalitate ezagunak ere ari zaizkio bultzatzen Tsiprasi Europar Batasuna utzi eta pilatutako zorrak hartzekodunekin zuzenean negoziatu ditzan.

Yanis Varoufakisek *Efimerida ton Syntakton* egunkarian lehen ministroari eskatu dio kiebra aitortu eta negoziat-

ketak hutsetik hasteko: “Bi atal horiek prestatzea da modu bakarra saihesteko epe laburrean Tsiprasek berriro atzera egin behar ez izatea eta epe luzean Schäublek bere plana burutzea”. Ez da fidatzen Europatik gauzak hobetzen saiatzeko promesa egin izan duten beste politikari moderatuegokien: “Jaun horiek badakite nola esan gezurra edo gezurretan ari ez direnean agindutakoa nola ez bete”.

Greziarren herena txirotasunena bizi da, langabeziak %23a harrapatu du, emigrazioa izugarria da eta estatua ez da kasik izen hutsa baizik. Aldi berean, mugaz beste aldean Turkia ikusten da indarra erakusten, militar turkiarrak maniobratan Greziaren uharte inguruetan. Turkiako armadaren mehatxuak ere kontatzen du greziarren arten. Europa ere ohartuko da noizbait. ■



**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

 

**50 urtez elkarrekin**